



LASARTE-ORIAKO  
UDALA

## Lasarte-Oriako Ostalaritzaren aktibazioa Activación de la Hostelería en Lasarte-Oria

### 2. Partehartze-bileraren akta Acta de la 2ª reunión de participación

Dokumentu zkia.: 02

<b>Data / Fecha:</b>	2013/01/29	<b>Ordua / Hora:</b>	10:00 - 12:00
<b>Lekua Lugar:</b>	Lasarte-Oriako Udala "Villa Mirentxu"ko ekitaldi aretoa Ayuntamiento de Lasarte-Oria. Salón de actos de "Villa Mirentxu".		
<b>Antolatzaileak: Convocantes:</b>	<input type="checkbox"/> <b>Gizarte Zerbitzuak, Inmigrazioa, Kooperazioa, Enplegua eta Emakumea Saila:</b> Departamento de Servicios Sociales, Inmigración, Cooperación, Empleo y Mujer: <ul style="list-style-type: none"><li>○ Gorka Lizarraga. Departamentuko lehendakaria. Presidente del Departamento.</li><li>○ Dionisio Ávila. Enplegu dinamizatzailea. Dinamizador de Empleo.</li><li>○ Izaskun Cuartango. Toki garapenerako teknikaria. Agente de Desarrollo Local.</li></ul> <input type="checkbox"/> <b>Parte-hartze Saila:</b> Departamento de Participación Ciudadana: <ul style="list-style-type: none"><li>○ Larraitz Sarobe. Partehartze teknikaria. Técnico de participación ciudadana.</li></ul>		
<b>Bertaratuako establezimenduak: Establecimientos asistentes:</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>○ Tati's Hamburguesería</li><li>○ Patrizio Pub</li><li>○ Artizar Taberna</li><li>○ Bar Txanpa</li><li>○ Abend Kafe-antzokia</li><li>○ Bar Santxo</li><li>○ Bar Trumoi</li><li>○ Garakari Taberna</li><li>○ Bar Siglo 20</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>○ Bar Avenida</li><li>○ El Bar de Mau</li><li>○ Bar Arkupe</li><li>○ Bar Maider</li><li>○ Bar Txema</li><li>○ Guria Taberna</li><li>○ Bar Gure Etxea</li><li>○ Jalgi</li></ul>	

### Landutako gaiak

Azaldu egiten dira Udaleko sail bakoitzak eman dituen erantzunak aurreko bileran, 2012ko azaroan, sektoreak egindako proposamenei.. Ondoren, taldeka egin da lan zehazteko proposamen ezberdinen lehentasun-ordena, bakoitzari puntuazio bat emanez:

### Sektorean Mantendu nahi dena

1. Bezeroak: 85
2. Kontzertuak eta jarduera musikalak (Multimusikala,...):72
3. Establezimenduen dibertsitatea: 49

## **Hobetu nahi dena**

1. Terrazen ordutegiak. Araudi bat egin zehaztuz zein ordurarte egon daitezken irekita, eta ezagutu nahi da ere momentu honetan Hirigintza sailean zer ari den arautzen (antza denez, araudi berri bat prestatzen ari da orain): 67
2. Bilera sektorial hauen formatua mantendu, eta partehartzea areagotu: 56
3. Kultura-jarduera gehiago egin eta hobeto sakabanatu udalerrri osotik. Adibidez, jaietan ez daitezela egon ekintza denak Okendo plazan kontzentratuta: 70
4. Aterpeako elkarteak hobetu. Hobetu ere Lasarte-Oriako ostalarien elkarteak: 45
5. Gaueko segurtasuna hobetu Lasarte-Orian: udaltzainen patruila gehiago, labanak soinean daramatzaten pertsonen kontrola egin, eta baita ere gauetan egoten diren inzidentziena. Horrekin posible izango litzateke ostalaritzako kontsumoa inguruko udalerrri seguruagoetara ateratzea: 72
6. Udalak publizitate handiagoa egitea sektoreak antolatzen dituen ekintzen inguruan: 65
7. Eskaintza kultural eta ekimen gehiago: 73

## **Ez dagoena**

1. Partehartze handiagoa duen elkarte bat. Ostalarien arteko batasun handiagoa: 73
2. Aparkalekuetarako espazioetan terrazak jartzeko aukera eman (Urnieta egiten den bezala): 48
3. Aparkalekuentzako espazio gehiago eman (adibidez, aipatzen da Atsobakar-en egindako obren ondorioz aparkatzeko espazio gutxiago geratu dela): 75
4. Ez dago kontrolik gaueko borrokengain, ezta horiekin bukatzeko neurririk ere (behin ta berriz gertatzen borrokak dituzten lokalak itxi, eta abar): 76
5. Ixteko ordutegiak errespetatzen ez dituzten lokalen kontrola (pertsanak jaitsi eta barruan bezeroak atenditzen jarraitzen dute): 65
6. Ekintzaileentzako laguntza espezifikoa, adibidez, Udalak kopromisoa hartzea irekiera-lizentzia hilabeteko epean emateko gehienez ere: 76

Aurreko puntuaketetatik abitatuta, zehaztu da Udalaren ekintzarako ondorengo **lehentasun-ordena**:

1. Bezeroak: 85
2. Ekintzaileentzako laguntza espezifikoa, adibidez, Udalak kopromisoa hartzea irekiera-lizentzia hilabeteko epean emateko gehienez ere: 76

3. Ez dago kontrolik gaueko borrokengain, ezta horiekin bukatzeko neurriker ere (behin ta berriz gertatzen borrokak dituzten lokalak itxi, eta abar): 76
4. Aparkalekuentzako espazio gehiago eman (adibidez, aipatzen da Atsobakar-en egindako obren ondorioz aparkatzeko espazio gutxiago geratu dela): 75
5. Eskaintza kultural eta ekimen gehiago: 73
6. Partehartze handiagoa duen elkarte bat. Ostalarien arteko batasun handiagoa: 73
7. Kontzertuak eta jarduera musikalak (Multimusikala,...):72
8. Mejorar la seguridad nocturna en el pueblo: mayor presencia de coches patrulla, control policial de las personas que llevan encima armas blancas y control de los incidentes nocturnos. Todo ello puede servir para evitar una evasión del consumo hostelero hacia otros municipios cercanos más seguros: 72
9. Kultura-jarduera gehiago egin eta hobeto sakabanatu udalerrri osotik. Adibidez, jaietan ez daitezela egon ekintza denak Okendo plazan kontzentratuta: 70
10. Terrazen ordutegiak. Araudi bat egin zehaztuz zein ordurarte egon daitezken irekita, eta ezagutu nahi da ere momentu honetan Hirigintza sailean zer ari den arautzen (antza denez, araudi berri bat prestatzen ari da orain): 67
11. Udalak publizitate handiagoa egitea sektoreak antolatzen dituen ekintzen inguruan: 65
12. Ixteko ordutegiak errespetatzen ez dituzten lokalen kontrola (pertsanak jaitsi eta barruan bezeroak atenditzen jarraitzen dute): 65
13. Bilera sektorial hauen formatua mantendu, eta partehartzea areagotu: 56
14. Establezimenduen dibertsitatea: 49
15. Aparkalekuetarako espazioetan terrazak jartzeko aukera eman (Urnieta egiten den bezala): 48
16. Aterpeko elkarte hobetu. Hobetu ere Lasarte-Oriako ostalarien elkarte: 45

Aurrekoez gain, **proposamen berriak** egin ziren bileran:

- Terrazen ordutegiak malguago egin, beranduago kentzeko aukera egon dadin.
- Udaltzainek begiratu dezatela, patrulletan daudenean, zein kale dauden argirik gabe eta informatu diezaiotela Udalari.
- San Pedroak baino lehen beste bilera bat egitea sektorearekin, eta Udalak errespetatu dezala bertan erabakitzen dena (adibidez, kalean taberne barrak jartzeari buruzkoak).
- Planteatzen da Multimusikalak behar duela Udalaren laguntza handiagoa, izan ere, bi pertsonen artean bakarrik antolatu izan da eta seguruena datorren edizioa ez da egingo.
- Posible izango litzateke aparkaleku tenporal bat jartzea Michelin-en edota hobeto argiztatu Hipodromoko aparcalekua jendeak gehiago erabili dezan.

- Ezadostasuna planteatzen da terrazen tasen igoerarekin. Erantzun modura, Udalak aukera ematen du bilera espezifiko bat egitea (sektoreak eskatuta) gai hori lantzeko.
- Udalak planteatzen du, aukera bezala, Merkatarien eskubide eta betebeharren udal-gida bat egitea, ostalaritzaren sektorea ere barnehar dezakena.

Azkenik, gogorarazten da Dionisio Ávila dela Udalak izendaturiko pertsona Merkataritza, Ostalaritza eta Zerbitzu pertsonalen sektoreekin harremanetarako. Beraz, enpresek berarengana jo dezakete konsultak edota proposamenak egiteko ([d.avila@lasarte-oria.org](mailto:d.avila@lasarte-oria.org)).